

JOSE ANTONIO ARANA ETA EUSKARA

Henrike Knörr

Bilbon, 2002ko maiatzaren 17an

Ezin egin daitekeen lana egotzi didate, baina, aldez edo moldez, saiatuko naiz zerbait azaltzen. Eta ezina zergatik? Minutu batzuetan tituluak iragaritzen duena ezin eman dezakedalako. Nire eskasia eta gabezia badago tartean, nola ez, baina, oroz gain, Jose Antonio Aranaren uzta aberatsa.

Jose Antonio Aranaren argitalpenen zerrenda luzea lehendabizikoz ikusten duena berehala konturatuzen da, batetik, euskarak gizon honen bizitzan izan duen eta duen pisuaz eta, bestetik, euskalarien artean irabazi duela, aspaldi irabazi ere, toki berezi-berezia.

Bai. Euskara ardatz izan du gizon honek. Bigarren Errepublika ate joka zelarik, 1931ko martxoaren 10ean, munduratu zen gaurko gure omendua, Gernikan. Euskaraz hazi eta hezi izan zen, nahiz, euskaldun gehienei oraintsu arte gertatu bezala, eskolan gure hizkuntzak nozitzen zuen morrontza ezagutu. Euskara zuen adierazpide, euskara lanean eta jolasean tresna gau eta egun, gogobihotzetan. Gaztelaniaz jabetu zen, jakina, mutiko erne hura, eta ederki jabetu ere. Eta berdin frantsesaz, gerragatik erbesteratu zenean. Ingelesa erantsi behar dugu, franko goiz ikasia, familiako itsas-deiaren poderioz. Eta, apaiz izateko bidean nahitaezkoak, latina eta greziera. Hots, euskaldun gazteei opa dakioken bizkar-zaku ederra zuen Jose Antoniok hogeitertara iritsi baino lehen, hizkuntzei dagokiela. Baina oinarrian, nortasunaren hezur eta mami, euskara.

Euskalduna ez ezik, ordea, euskalari ere dugu Jose Antonio Arana bete-bete. Euskalari trebe, hainbat esparrutan ibilia, hainbat ezkutu argitua. Ez espero gure adiskidearengandik euskarari buruzko teoriarik, ez gramatikazko ikerkuntzarik. Zorionez, dena ez da teoria ez gramatika. Beste zerbait egin du Jose Antoniok. Euskararekin eta euskal kulturarekin lotura duten pertsonaiak eta gertaerak zorrozki aztertu, ehunka idazlan eta hitzaldien bitartez.

Azkueren biografia, 1983an argitaratua, beharko nuke lehen-lehenik aipatu. Iruditzen zait lekeitiarrarentzat legez, euskara dela Jose Antoniorentzat aberria eta bizitokia. Mendetako utzikeriak eta axolagabekeriak arrakalatu etxea edertu behar zen eta behar da. Langintza horretan aritu zen, nekagaitz

eta zuhur, Resurrección M^a Azkue. Orobat Jose Antonio Arana, Azkuek izan duen mireslerik handiena, seguru aski. Liburua miresmen horren adibide ona da, baina adibide gehiago utzi ditu Jose Antoniok, Azkueren ondaretik deus ere gal ez dadin saiaturaz eta lekeitiarraren fruituetatik orok izan dezaten eza-gutza eta sarbidea.

Gerra baino lehenagoko Euskaltzaindi hark bi zutabe nagusi izan zituen: Azkue eta Urquijo. Eta beronen bizitza ere kontatu digu Aranak egoki, labur baina egoki, *Bidegileak* deritzan liburu-sortan (1993an). Ahazturarako joera negargarria erakusten duten gure herrikide askok hobe lukete, zalantzarik gabe, orrialde horietan murgildu, garai zail hartan zer egin zen ikusteko eta gure garai ez erraz honetan zer egin behar dugun hausnartzeko.

Hor ez dira, ez, amaitzen Jose Antonio Aranak idatzi dituen biografiak, jakina denez. Seber Altube gernikartua hil zenean, 1963an, artikulu bat eskaini zion herriko aldizkarian. Gero etorriko zen Altuberen bizitzaz eta bibliografiak bi lan mamitsu, *Euskera* aldizkarian, 1973an eta 1974an. Bost urteren buruan Bonifazio Etxegarai argitaratu zuen, aldizkari berean, beste lan bat. Baina Sarako erretoreak zioen bezala, zertako sartzen naiz itsas hondar-gabe honetan? Anitz izan baitira euskalariez eta euskal idazleez Jose Antonioren ikerketak. Zilegi bekit itsas horretatik Luis Villasanten omenaldi-liburuan agertu zuen biografia bikaina aipatzea. *Ex abundantia cordis*, bihotzak hala agindurik, mintzo da Arana, gernikarraz –edo, nahi baduzue, errenteriarraz–. Lan hori euskaltzainburu ohiarekiko atxikimenduaren erakusgarri da, agian, ezer baino lehen, aitortu nahian Villasantek euskararen alde eta Akademiaren alde egin lan izugarria, eta agertu guran Luis Villasantaren gizatasun paregabea.

Gernikatik atera gabe, nola ez ekarri laudorio honetara Jose Antonio Aranak bere herriko folkloreaz, eta bereziki, musikaz idatzia? Berehala entzungo duzue xehekiago honi buruz. Esan dezadan, bakar-bakarrik, Aranak ederki jakin duela uztartzen euskara eta musika, bien artean dagoen lokarri sendoa azalduz.

Noan, haatik, beste eremu batera. Liburuzain izan baita Jose Antonio, eta euskarari eta gure Herriari buruzko liburu eta artikuluen katalogatzaile. Esan behar ote dut lan eskerga egin duela guztiz garrantzitsua den eremu horretan? Esan behar ote dut Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka egun zerbait bada harrengatik dela, batez ere? Ongi gogoan dut Euskaltzaindiaren Zuzendaritzaren bilkura bat, 1978an. Beste zenbait gairen artean, han genuen Jose Antonioren gutuna, Villasante jaunari egina: bere burua eskaintzen zuen, Akademiaren liburuzain izateko. Eta guk onartu, jakina, nahiz alogera txikia zen, arras txikia, ezinbestean.

Lan eskerga, bai, gogotik eta eskuzabal ariturik beti. Eta eskola eginik, hau ere esan behar dut. Zeren jarraibide eta eredia utzi baitu Euskaltzaindiaren liburutegian Arana jaunak, nabari denez.

Gaztetandik jarduna zuen katalogatze-lanean, eta aski da ikustea Jose Zunzunegirekin batera Gasteizko apaizgaitegiaren bibliotekan burutua. Euskarlaritzan, ordea, bazen amets bat: Bonaparteren eskuizkribu eta argitalpenen katalogatze zehatza. Horixe zuten eskatzen ikertzaileek, eta horixe eskertu zuten, liburua 1989an agertu zenean. Eta eskertu euskaldunek ez ezik, atzerrikoek ere bai, zabala izan baitzen, dakizuen bezala, Bonaparteren ikerzelaia.

Gogoratu behar da, bestalde, bi urte geroago Jose Antonio Aranaren eraginez, Bonaparteren itzulpenekin lau liburuki gotor argitaratu zirela, *Opera omnia vasconice*, euskalari haren mendeurrenkari.

Eta berrikiago, Georges Lacomberen ondarearen katalogatze-lanean arituzen Jose Antonio Arana bere laguntzaileekin. Duela astebete hil zitzaigun M. Josefa Ganuzaren eskuzabaltasunari esker, Euskaltzaindiak hori guztia zerrendatu ahal izan zuen eta ikertzaileen eskuetatarratu. Goresmenak zuri, Jose Antonio.

Bukatu behar dut. Euskararen zerbitzari, ororen buru, da Arana jauna. Zerbitzari bipila, zorrotza, nekagaitza. Luzaro izan dadila horrela, gure Herriaren eta gure hizkuntzaren faboretan!